

BALIO PROPOSAMENA

Gure bigarren eskuko denda sortu nahi dugu, produktuak berrerabiltzeko eta prezio merkeetan eskaintzeko. Konturatu gara moda gustatzen zaion orori, egunean joan nahi badu, diru asko joaten dela arropa eta osagarriak erosten. Horrela, azkenean kantitate handiak erosten direla baina ez dela errentagarria ateratzen, ingurumenerako ez dela egokia eta ez diogula nahi adina probetxu ateratzen erosten dugun horri. Beraz guk gure dendarekin, hondakin gutxiago sortuko dela iruditzen zaigu eta ingurumenari lagunduko diogu, gure inguruak garbiago mantenduz. Aldi berean, ekonomikoki zailtasunak dituzten pertsonak aukera gehiago emango diegu, arropa eta bestelako gauzak merkeago eskuratuz. Bezeroak gazteak, ikasleak eta familiek osatuko dituzte, eta kontsumo jasangarriaren aldeko pertsonak ere erakarriko ditugu. Gure helburua da prezio baxuko produktuak eskaintzea, baina beti kalitatea zainduz. Gainera, dendara etortzen diren bezeroek aukera zabala aurkituko dute, euren gustu eta beharretara egokitua.